



## ARTZINIEGA KO UDALA

### AKTA

**Saioa: Ohiko osoko bilkura**  
**Eguna: 2019ko maiatzak 2**  
**Ordua: 19:05 – 19:30**  
**Lekua: Udaletxeko Bilkura Gela**

Bertaratutakoak:

Iñigo Gomez Unzueta  
Inmaculada Vivanco Retes  
Maria Lorente Burgos  
Miren Izaskun Perez Barragan  
Arkaitz San Jose Martinez  
Alazne Lafragua Ureta

Ez dira bertaratu:  
Joseba Mirena Vivanco Retes  
Unai Gotxi Kastrexana  
Joseba Elejalde Ribacoba, ez bertaratzearen arrazoia azaldu duena.

M<sup>a</sup> Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 19:05etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

#### **1.- 2019ko apirilaren 1ean egindako saioko zirriborro-akta onartzea, hala badagokio.**

Idazkariak, bozkatu aurretik, gai-zerrendan akta hau soilik barneratu dela aipatu du, martxoko eta apirilako saioetako aktak egiteke daudelako.

Alkatea: beno, igorriko dira, bozka dezagun.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (2); Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (2);

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta eta Inmaculada Vivanco Retes, EAJ-PNV alderdikoak (2);

Onartuta geratu da.

#### **2.- Artziniegako Udaleko langileen soldataren igoera onartzea, 2019rako.**

Alkateak 2019ko apirilaren 24an egindako Antolaketa Informazio Batzordearen saioan emandako irizpena irakurri du.



**“ARTZINIEGAKO UDALEKO LANGILEEN SOLDATA-IGOERAREN AKORDIO-  
PROPOSAMENA 2019**

KONTUAN IZANIK, joan den abenduaren 27an EAO aldizkarian sektore publikoko ordainsarien gaineko premiazko neurriak onartzeko abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege Dekretua argitaratu zela.

KONTUAN IZANIK Errege Lege Dekretu horretan 2019. urterako langile publikoentzako ordainsarien igoerak arautzen direla eta soldataren igoera finko bat aurreikusten dela, gehi ekonomiaren hazkundearekin lotutako igoera-portzentaje gehigarri bat.

KONTUAN IZANIK Errege Lege Dekretuko 3.2 artikuluan zera xedatzen dela:

- 2019. ekitaldian sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariet ezingo dute 2018ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean ehuneko 2,25etik gorako igoera orokorrik jasan, bi alderaketa aldiatarako homogeneotasun baldintzetan, ez langileei dagokionez, ez horien antzintasunari dagokionez, eta ondorio horietarako gizarte-ekintzari lotutako gastuak aintzatetsi gabe, oro har, 2019an ezingo direnak igo 2018. urtearekin alderatuta. Horri dagokionez, gizarte-ekintzako kontzeptuan agertzen diren gastuak burututako lanaren kontraprestazioez aparteko onura, osagarri edo hobekuntzak direla ulertzen da, zeintzuen helburua sektore publikoaren zerbitzura dauden aipatu langileen inguruabar pertsonalen ondoriozko premia jakin batzuk asetzea baita.
- Aurrekoaz gain, Barne Produktu Gordinaren (BPGd) areagotzea prezio konstanteetan % 2,5era iritsiko balitz edo hori gaitutako balu 2018an, 2019ko uztailaren 1eko ondorekin, ordainsarietan % 0,25eko beste areagotze bat aplikatuko litzateke. Adierazitako ehuneko 2,5etik beherako igoera baterako, igoera modu proportzionalen murriztuko litzateke ehuneko 2,5 horren gainean egindako murrizketaren arabera. Beraz, igoera orokorrak honakoak izango dira:

BPGd berdin 2,1: % 2,30

BPGd berdin 2,2: % 2,35

BPGd berdin 2,3: % 2,40

BPGd berdin 2,4: % 2,45

Atal honetan xedatutakoaren ondoretarako, BPGd-ren areagotzeari dagokionez, Espainiako Estadistika Institutuak (INE) argitaratutako urte bakoitzeko BPGd-ren estimazioaren aurrerapena aintzat hartuko da. INEk BPGd-ren aurrerapena argitaratu ondoren, eta 2018ko martxoaren 9an Segimendu Batzordeari enplegu publikoa eta lan-baldintzak hobetzeko erabakiaren berri eman baino lehen, Ministro Kontseiluaren erabaki bidez onartuko da, hala badagokio, gehikuntza aplikatzea. Erabaki horren berri emango zaie autonomia-erkidegoei, hiri autonomoei eta Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioari.



*Horrez gain, soldata-masaren % 0,25eko areagotze osagarria baimendu ahalko da, beste neurri batzuen artean, ekoizpena edo eraginkortasuna hobetzeko planak edo proiektuak ezartzeko, antzeko eginkizunak dituzten lanpostuen arteko berariazko osagarriak aztertzeko, lanpostu-mailako osagarriak homologatzeko edo pentsio-planekiko ekarpenak egiteko. Administrazioetan eta artikulu honetan definitutako sektore publikoaren menpeko gainerako erakundeetan, 2018 ekitaldian aurrekontuko superabit egoeran badaude, areagotze osagarri hori % 0,3koa izan ahalko da...”*

*IKUSIRIK 24/2018 Errege Lege Dekretuko 3.2 artikulu aipatua, Udalbatzari proposatzen zaio, har dezala hurrengo akordioa:*

**Lehena.**- *Udaleko langileen ordainsariak 2019ko urtarrilaren 1eko ondorioekin areagotzea 2019ko ekitaldirako, % 2,25ean 2018ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean.*

**Bigarrena.**- *2019ko uztailaren 1eko ondorioekin, Barne Produktu Gordinaren igoera ehuneko 2,5etik gorakoa balitz, ordainsariak beste ehuneko 0,25 areagotzea, modu proportzionalean minoratuko dena ehuneko 2,5 horren murrizketaren arabera, Errege Lege Dekretuan ezartzen diren portzentajeak aintzatetsiz.*

**Hirugarrena.**- *Igoera gehigarria onartzea soldata-masaren ehuneko 0,3ko aurrekontuko superabitat-egoeraren arabera, legezketasunari jarraiki udal autonomiaren eta negozioazio kolektiboaren barnean banatuko dena.*

**Laugarrena.**- *Aipatutako gehikuntzei aplika dakizkiekeen eta jaso ez diren atzeratutako zenbatekoak ordaintzea.*

**Bosgarrena.**-*Erabaki honen berri ematea ordezkari sindikalari eta Udaleko Kontu Hartzailatza eta Diruzaintzari”.*

Bozkatu egin da

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (2)

Onartuta geratu da.

**3.- Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien artean administrazio elektronikoko oinarritzko irtenbideei dagokienez elkarren arteko prestaziorako lankidetzahitzarmenera atxikitzea.**

**EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ADMINISTRAZIO NAGUSIAK ESTATUKO ADMINISTRAZIO NAGUSIAREKIN 2017KO MARTXOAREN 24AN ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAREKIN 2018KO ABENDUAREN 11N SINATUTAKO ADMINISTRAZIO**



## **ELEKTRONIKOAREN OINARRIZKO IRTENBIDEEI DAGOKIENEZ ELKARREN ARTEKO PRESTAZIORAKO LANKIDETZA-HITZARMENETARA ATXIKITZEKO PROTOKOLOA.**

Ikusirik Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien arteko administrazio elektronikoaren oinarritzko irtenbideei dagokienez elkarren arteko prestaziorako lankidetzaz hitzarmena, Arabako Udal guztiei atxikitzeke aukera ematen diena.

Kontuan izanik Hitzarmena administrazio elektronikoaren Zerbitzuen Katalogoko irtenbide teknologiko hauei buruzkoa dela:

- Euskadiko Herri Administrazioetako komunikazio-sarea.
- Identifikazio, egiaztapen eta sinadura elektronikorako bitartekoak kudeatzeko zerbitzuak.
- Euskadiko Administrazioen Elkarreragin eta Segurtasunerako Nodoa (EAESN)
- Ordainketa-pasabidea

Kontuan izanik Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Administrazio Nagusiak administrazio elektronikoaren oinarritzko irtenbideen prestaziorako hurrengo Lankidetzaz Hitzarmenak sinatu dituela:

- 2017ko martxoaren 24an Estatuko Administrazio Nagusiarekin, hartako lehen klausulako 2. atalarekin bat etorritik, eta Euskal Herriko Aldizkari Ofizialeko 76. alean, 2017ko apirilaren 21ean argitaratua.
- 2018ko abenduaren 11n Arabako Foru Aldundiarekin, era berean azken horren lehen klausulako 2. atalarekin bat etorritik, eta Euskal Herriko Aldizkari Ofizialeko 246. alean, 2018ko abenduaren 24an argitaratua.

Aintzat hartuz Artziniegako Udalak bi Hitzarmenak ezagutu eta aitzakiarik gabe onartzen dituela horiekiko atxikipenari dagokionez aplikagarri zaion guztirako, eta horietan sinatzaile direnek (edo etorkizunean eguneratu edo aldatzen dituztenek), beren eskumenera barnean, Hitzarmenean Arabako Foru Administrazioari begira ezartzen diren betebeharrak ontzat hartuz, ematen duten administrazio elektronikoko oinarritzko irtenbide teknologiko bakoitzaren sarbide eta erabilerari dagokionez haietan ezarritako betebeharrak betetzeko konpromisoa hartzen duela.

### **ADOSTU DU:**

**LEHENA:** Artziniegako Udala aipatu Lankidetzaz Hitzarmenetara atxiki dadila eskatzea, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Administrazio Nagusiak ondoren aipatzen direnekin sinatutako administrazio elektronikoaren oinarritzko irtenbideak elkarren artean emateko:

- 2017ko martxoaren 24an Estatuko Administrazio Nagusiarekin, hartako lehen klausulako 2. atalarekin bat etorritik.
- 2018ko abenduaren 11n Arabako Foru Aldundiarekin, era berean, azken horren lehen klausulako 2. atalarekin bat etorritik, eta administrazio elektronikoaren Zerbitzuen Katalogoko hurrengo irtenbide teknologikoei dagokienez:
  - Euskadiko Herri Administrazioetako komunikazio-sarea.
  - Identifikazio, egiaztapen eta sinadura elektronikorako bitartekoak kudeatzeko zerbitzuak.



- Euskadiko Administrazioen Elkarreragin eta Segurtasunerako Nodoa (EAESN)
- Ordainketa-pasabidea

**BIGARRENA.-** Arabako Foru Aldundiari akordio honen berri ematea.

Alkatea: nik uste dut, ordainketa-pasabideari dagokionez dagoeneko zerbitzua ematen ari garela, Hitzarmenak ikusi baldin badituzue, hala atxikipenerako protokoloa nola Estatuko Administrazio Nagusiaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean eta ondoren Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren artean, elkarreraginerako oinarritzko finkatu eta ondoren Estatuaren Administrazioaren nahiz Eusko Jaurlaritzaren edo Aldundiaren beraren tresnak erabili ahal izateko sinatutako Hitzarmena, zerbait galdetu nahi duzue?

Arkaitz San Jose: nik, galdera pare bat, bata forman eta bestea sakonekoa. Formakoari dagokionez, Akordioaren proposamenean agertzen den idazketa Gobernu Batzordekoa da, ez dakit Gobernu Batzordekoa den ala Udalbatzako.

Alkatea: Gobernu Batzordeak berez ez du eskumenik, are gehiago, Gobernu Batzorderik ez duten Udal askotara iritsiko da eta hitzarmen bat da.

Arkaitz San Jose: eta ondoren sakoneko galdera bat, nik ez dakit zein neurritan den hau derrigorrez betetzekoa, izan ere, Hitzarmen bat da eta ondoren galdera teknikoago bat, ongi ala gaizki ote datorkigun, administrazioen arteko lankidetzaren aipatzen da.

Idazkaria: ni gustura egongo nintzateke sinatuko ez balitz, baina funtzionatzen hasi beharrean gaude, ezin gara atzean geratu.

Arkaitz San Jose: esan nahi dut, eta hori sarritan hitz egin dugu, ongi iruditzen zait bitarteko elektronikoa ohikotasunean sartzea, batez ere diru publikoa izatean administrazio ezberdinen artean kontrol handiagoa bermatzen du eta abar, eta erabiltzen dugun diruarekiko erantzukizunez egin beharreko zerbait da, ez dakidana da, azkenik, gurearen moduko udal txikiek, egun osoa datuak igortzen eta administrazio gorenakoen eskaerak artatzen egon behar ote garen, eta dagoeneko badugun lan-kargari gaineratzen zaion zerbait izango ote den edo alderantzizkoa izango ote den, sarean sartzeak erraztu egingo ote digun.

Alkatea: Hitzarmen honek tresnak ematen ditu, gu administrazio elektronikora derrigortzen gaitu, gu gure kabuz ez gara gai bitarteko horiekin hornitzeko, betebeharra dugu, esate baterako Kontratuen lege berriaren bidez kontratazio telematikoarekin.

Arkaitz: enpresak ere derrigortzen ditu eta enpresak dauden moduan daude.

Alkatea: tresna horiek erabili ahal izateko modu bat da, gero ikusiko dugu erabilgarriak diren ala ez.

Arkaitz San Jose: administrazio elektronikorekin ez dut zalantzarik, zalantza dut horrek zer suposatzen duen Udalak dituen baliabideentzat martxan jarri artean, izan ere, gauza asko egin behar dira, honakoaz gain.

Alkatea: lan egiteko modua aldatzea dakar eta oraintxe bertan paperetik telematikorako jauzia ematen ari gara.

Bozkatu egin da

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez

Aldeko botoak:



Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (2)

Onartuta geratu da.

#### **4.- 2019. ekitaldiko lehen hiruhilekoko aurrekontu-egikaritzearen berri ematea.**

Bertaratu diren kide guztiek jakintzat eman dute:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (2)

#### **5.- 2019ko lehen hiruhilekoko ordainketarako batez besteko epealdiaren txostenaren berri ematea.**

Alkatea: 52,56 egunetan gabiltza.

Bertaratu diren kide guztiek jakintzat eman dute:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (2)

#### **6.- Alkatetzaren ebazpenak jakinaraztea.**

Alkateak, Idazkariaren laguntzarekin, 77 eta 109 bitarteko dekretuen berri eman eta eta 79., 92. eta 104. dekretuak falta direla adierazi du.

Alkatea: ezer galdetu nahi baduzue?

Arkaitz San Jose: bai, adierazi nahi dut kreditu orokorraren gaiari egur handia ematen ari gatzaizkiola, hala izan behar dela ulertzen dut.

Alkatea: batez ere aurrekonturik onartu gabe egon garen epealdian izan da, eta aurrera atera behar genituen gauzak zeuden, hori da kreditu orokorraren arrazoi nagusia eta ondoren baita Diru-zaintzaren soberakinerako kargurako kreditu gehigarriena, batzuk aurrekontuaren behin betiko onarpenarekin sartzen dira eta hori da.

Arkaitz San Jose: orduan luzatutako aurrekontutik areagotu diren partidak dira, aurrekontuan dagoenarekin bat etor daitezten.

Arkaitz San Jose: beste gauza bat, gaur goizean zerbait aipatu duzue, Alkatetzaren 106/2009 zenbakidun Dekretuaren gaiarekin, SAUR-1 sektoreari, Hormazari eta urbanizazioaren harrera-akta jasotzeko ezarritako data maiatzaren 22a dela kontuan izanik bertatik bertara egin beharreko neurri zuzentzaile edo zuzenketa andana ondorio dituzten akats anitzei buruz arkitektoak egindako txosten osoa; uste dudanez, epealdi horretan guztian ez dakit gaurko saiotik aurrera edo ez dakit zein egunetatik aurrera den jardunean, halako gauzak egin ote daitezkeen, uste dut baietz baina ez dakigu ziur.

Alkatea: jardunean hauteskunde osteko egunetik aurrera sartzen da.

Arkaitz San Jos: hauteskunde osteko egunetik aurrera? Hots, Udalbatza ez da desegiten eta jardunean sartzen da.

Idazkaria: eta epealdi horretan ezin da gehiengo kualifikatua eskatzen duten akordiorik hartu.

Alkatea: adibide batera esango dizut erabaki garrantzitsuak hartzeko gaur Gobernu Batzordea izan dugula Foru Planean zein proiektu eskatu proposatze aldera, Kultur Etxea eta Geltoki Plazako zonaldeko estalkia eraberritzeko, epea ekainaren 10ean amaitzen da eta ebatzi egin beharko dugu.



Arkaitz: gai honek bereziki arduratzen nau, izan ere, hilabete eskas dauka zuzenketa andana burutzeko, botereen eskualdaketa bat egongo da eta arlo hau nola jorratu behar den zehazteko erantzukizunena, proiektuko gauza pila bat ez baitira egiten, ez dira doitzen eta zentzu horretan enpresak derrigorrez, Udalak obraren harrera egin aurretik, haiek ahalegintzen dira behin-behinekoz jadanik jaso dezagun, baina gehiegizkoa da.

Alkatea: gai hori, Korporazioan egoten den aldaketarena, bertan egoten dena egoten dela ere, honek bere izapidea izango du, azkenik urbanizazio-proiektu bat egikaritzea da kontua eta lantalde teknikoak kontrola egin behar du, ez soilik arkitekto teknikoaren aldetik, baita aparejadorearen aldetik ere, proiektua egikaritu dela eta horrenbestez obraren harrera egin daitekeela irizten duten unean, ikusiko dugu, egia da gauza asko daudela, badira dagoeneko ongi dauden gauzak, bilkurak egin dira, arkitektoaren aldetik lehendabiziko balioespen bat egon da eta ikusiko dugu zein bilakaera izaten duen, Korporazioa aldatzeak ez dakar irizpide aldetiko aldaketa bat, izan ere, kontu tekniko bano ez da, haiek aurkeztu zuten urbanizazio-proiektu bat dago, urbanizazio-proiektu hori onartu egin zen eta orain proiektuan esaten denera doitu behar da eta lantalde teknikoak esaten duenean harrera egin daitekeela, harrera egingo da eta ondorengo kudeaketari dagokionez, uste dut Hitzarmen Batzordek indarrean jarraituko duela obraren harrera egiten den bitartean eta une horretan, harrera egiten den unean, mantenua kontserbaziorako erakunde baten baitan geratuko da hamar urteko epe baterako.

Arkaitz: bada horixe Dekretuetan Kontserbaziorako erakundearen kontua ere jasotzen da, Hitzarmen Batzordearen erantzukizunaz eta ondoren Kontserbazioarenaz hitz egiten ari gara.

Idazkaria: Kontserbazio Erakundea, jabeek eraturia, urbanizazioaren kontserbazio eta mantenuaren kostuaz arduratzen da 10 urteko epe batez, eta Hitzarmen Batzordea Urbanizazioa behar bezala egikaritzeaz arduratzen da eta Urbanizazioa egikaritzen den unean desegin egingo da. Hori teoria da, baina gertatzen dena da Hitzarmen Batzordeak abenduan obraren amaiera aurkeztu zuenetik ez diela jaramonik egin txosten teknikoaren ohartarazpenei.

Arkaitz San Jose: gero hala gertatzen dira gauzak, badirela amaituta dauden gauzak, jendeak dio zergatik ez den harrera egiten..., ados, hurrengo korporazioari helarazi beharko zaio kontua, dagoena dagoela ere, edozein delarik ere gobernatzen ari dena.

Alkatea: gai hori egia esatera legealdi honetan denbora askoan izan da Udalean kudeaketari eta kontrolari dagokienez eta orain urbanizazio-proiektua, baina Korporazioaren aldaketak ez du inolako eraginik izango, jarraitu behar dituen izapideak jarraituko ditu.

Berlaratu diren kide guztiek jakintzat eman dute:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (2)

## **7.- Udal kudeaketaren kontrola.**

Alkatea: ezer baino lehen kontu pare bat esan nahi dizkizuet, gaur hain justu SR-1 sektorean egiteke dagoenari buruz egokitzeko obrarako eskaintza ekonomikoak ireki ditugu, lau eskaintza genituen eta bat da ekonomikoki mesedegarriena, nahiz eta gainerako betekizunak berrikusi egin behar diren, baina kontuan izanik hobekuntzak puntuatzeko baremo guztiak enpresa guztiak betetzen dituztela, orduan prezioa izango da enpresa esleipenduna erabakiko duena.

Ondoren idazketa-proiektu bat dago zuntz-zementuzko hoditeriaren, pilotalekuko parkingaren eta Ospitaleko aldapako asfaltatze guztiaren gainean, Saratxagureneko zonaldea da, non arkitektoaren txosten tekniko bat dagoen balio-judizioz haztatzen diren puntuen eskaintzak balioesteko, eta datorren astean automatikoki ebalua daitezkeen irizpideen gutun-azala irekiko dugu, orduan hilabete honetan zehar egingo da esleipena.



Idazketa-fasean dauden plegu ugari ditugu, aspalditik datozenak horiek ere, luminarien aldaketa, igerilekuetako obra, Plan Orokorrena heltzeke dago, modu telematikoan izapidetzeko eskatzen digute; Gordelizera ura hornitzeko hoditeriaren obra.

Aipatu aurreko Osokoan EALZ zentroaren edukieraz galdetu zela, 15 plaza hartzeko edukiera izango du, 20 plazara areagotu daitekeelarik.

Arkaitz San Jose: uste dugu gaurkoa izango dela legealdi honetako azken Ohiko Osoko Bilkura.

Idazkaria: ez ekainekoa hor dago.

Arkaitz San Jose: azkenekoz noiz egin zen boterea hartzeko ekitaldia?

Idazkaria: uste dut ekainaren 13an izan zela.

Alkatea: nik ere hau azken saioa zela uste nuen.

Idazkaria: korporatiboen ondareen deklaraziorako eredu onartu behar da.

Arkaitz: hori ikusirik, aurreko saioan Agenda 21 dela eta galdera egin nuen, legealdiko balioespen gisa, nahi duzu hurrengorako uztea edo, prestatu duzu?

Alkatea: hurrengorako utz dezakegu baina egia esatera Agenda 21, Kuadrilla mailan ez da gehiegi landu, Eskolako Agenda da eta hemen Ikastetxeak ez du eskolako Agenda 21ean parte hartzen, heltzeke dugun lanketa bat da hori eta garrantzitsua izango litzateke, izan ere, Kuadrillatik egiten diren jarduera guztiak eskolako Agenda 21 dute ardatz batez ere eta gu hor herren geratzen gara.

Arkaitz: eta zergatik?

Inmaculada Vivanco: bada kontua da egiaz ikastetxea nik gogoan dudala 2012an Paki eta biok joan ginen, Agenda 21 ziurtagiri edo diploma bat eman zitzaizen Arteko Gure Amari eta hurrengo urtean parte hartzeari utzi egin zioten, izan ere, irakasleak, Ikastetxeko jardueraz arduratzen ziren irakasle boluntarioak, ez dakit Zentrotik joan ziren eta geratzen zirenetatik inork ez zuen arduratu nahi izan.

Arkaitz: azken batean horrek CEIDA delakotik funtzionatzen du, hainbat ordu liberatzen dizkizute, proiektuaren arabera.

Inmaculada Vivanco: baina ez proiektuaz arduratzeko ere, baizik eta 2013an, 2014an, nik uste dut aurrerago ez zutela jarraitu.

Arkaitz San Jose: Kuadrillatik Aintzanez koordinatuko duelako ustez.

Alkatea: bai

Arkaitz San Jose: baina, noski, nahi ez badute.

Alkatea: eta azkenean landu duguna URA agentziarekin unean uneko ekintzak izan dira, baina ez Agenda 21 barnean.

Arkaitz San Jose: eta Udalsarea eta abar? horiek gainbeheran daude.

Alkatea: bai zuk diozuna

Arkaitz San Jose: izan ere herrialde honetan horrela funtzionatzen dugu, guztiok proiektu batean murgiltzen gara, nahi ez duena ere sartuz eta ondoren agortu egiten da azkenik, ados, bada hasiera batean ez dugu beste ezer.

Eta jorratzeko beste gairik gabe, amaitutzat eman zen Saioa, lehenago aipatu egunaren hemeretzi eta hogeita hamar minututan. Eta guztiorren gainean, fede ematen dut.